

Turismo Bulegoa
 Kale Nagusia, 2 · 31400 ZANGOZA
 (+34) 948 871 411
 oit.sangüesa@navarra.es
 www.turismo.navarra.es

- A** Udala: 948 870 005
- PM** Udaltzaingoa: 948 430 004 / 649 944 278
- ✉** Posta-etxea: 948 870 427
- 📖** Liburutegia: 948 871 417
- 🏛️** Kultura-etxea: 948 870 251
- ☎️** Telefono publikoa
- 🏠** S.O.S. Nafarroa **(112)**
Osasun-etxea: 948 871 441
- 🌿** Farmaziak
- 🚽** Komun publikoak
- 🚌** Autobusak:
• La Veloz Sangüesina: 948 870 209 / 666 444 929
• La Tafallesa/Alsa: 902 422 242
- 🛢️** Gasolindegia
- P** Aparkalekua
- T** Taxiak: 686 406 010 / 608 777 887
- 🚲** Haur-parkea
- 🏠** Iturriak
- 🏛️** Monumentuak
- 🚪** Erdi Aroko portalea
- 👉** Donejakue bidea
- 📄** Turismo-jarduerako enpresak:
1. "Sangüesa Tour": 620 110 581
- 🛒** Artisautza- eta oroigarri-denda
- 🛒** Supermerkatua
- @** Interneta
- 📶** Wi-Fi doakoa

1. Andre Maria eliza
2. Anues jauregia
3. Iñiguez Abarkatarren jauregia
4. Ongay-Vallesantoro jauregia
5. San Salvatore eliza
6. Iñiguez de Medranotarren jauregia
7. Andre Maria Karmengoa komentua
8. Carajeas portalea
9. Santiago eliza
10. San Frantzisko Asiskoa komentua
11. Paris Iñiguez Abarkatarren jauregia
12. Sebastianen jauregia
13. Vianako printzearen jauregia
14. Udaletxea
15. Vadoluengoko San Adrianen kapera

INFORMAZIO GEHIAGO

Bisita gidatuak

Bisita gidatuak antolatzen dira Zangozara eta Andre Maria elizara. Informazioa hemen:
 • **Turismo Bulegoa** (948 871 411)
 • **Sangüesa Tour** (620 110 581)

Erregeen Misterioa

Urtarrilaren 6an egiten da Zangozan auto sakramental hori. Interes Turistikoa Nazionala Jaia da.

Aisia

Los Pozancos piknikgunea: Aragoi ibaiaren ezker aldean, Zangozako sarreran, eserleku, mahai, sutegi eta iturriekin.

Kirola naturan

Zangozako eskualdean ala delta, kirol-hegazkinetan eta hegazkin ultra-arinetan hegaldiak, hipika, piragua, raftinga eta naturarekin lotura duten beste kirol batzuk egin daitezke.

Informazio gehiago lortzeko, joan turismo-bulegora.

NON LO EGIN

H1	Hotela Yamaguchi	Carretera de Javier, s/n.....	948 870 127
Hs1	Ostatua J.P.	C/ Padre Raimundo Lumbier, 3.....	948 871 693
AT	Apt. Turístico Sangüesa	Plaza Saint Palais, 1 - 3° B.....	679 118 728
P1	Pentsioa El Peregrino	Camino del Silo, s/n.....	608 983 892
A1	Errromesen aterpea	679 432 348
C1	Kanpina Cantolagua	Paseo de Cantolagua, 1.....	948 430 296

NON JAN

1	Asador Mediavilla	C/ Alfonso el Batallador, 15.....	948 870 212
2	Bodega de Vinos	C/ Mayor, 57.....	948 871 137
3	Camping Cantolagua	Paseo de Cantolagua, 1.....	948 430 296
4	Ciudad de Sangüesa	C/ Santiago, 4.....	948 430 497
5	Yamaguchi	Carretera de Javier, s/n.....	948 870 127



Zangoza

Reyno de Navarra **Nafarroa**ko Erresuma

Gobierno de Navarra **Nafarroako Gobernua** AGENDA 2030



UDALETXEA



ANDRE MARIA ELIZA



VALLESANTORO JAUREGIA



Zangoza

KOKALEKUA

Zangoza hiriak pasabideko kokaleku berezia du Piri-nioetako lehen mendikateen eta Ebro haraneko sakanunearen artean. Iparraldean Irunberri, Ledea eta Xabier udalerriekin egiten du muga; ekialdean Zaragoza probintziarekin; hegoaldean Peña mendikatearekin eta mendebaldean Oibarrekin. Nafarroako Erdialdean dago eta Aragoi ibaiak zeharkatzen du.

HISTORIA

Brontze eta Burdina aroetan du jatorria. Zangozako hondakin erromatarrek ere garrantzitsuak dira.

Antzinako Zangoza muino baten gainean egon zen, gaur egun Rocaforte dagoen horretan; musulmanekiko muga izan zen IX. mendean. Alfontso Borrokariak, Nafarroako eta Aragoiko erregeak, hala

erabakita, beste herrigune bat sortu zen ordokian: Zangoza Berria; erregeak berak eman zion Jakako forua 1122an, hagitx onuragarria baitzen erresumarentzat herri garrantzitsu bat izatea Somportetik zetorren Donejakue bidean. Horrela ulertzen da Donejakue bideak Zangozari emandako bultzada ekonomiko eta soziala.

Hiribildua zubiaren norabideari jarraituz egituratu zen, gotorleku moduan. Kale paralelo eta perpendikularrak zituen, harresi eta dorrez inguratuta (Zangoza maiz nahasi zen mugak defendatzeko Aragoiren aurkako borroketan), eta ate bana lau puntu kardinaletan.

Luis Hutin erregeak eman omen zien zangozarrei "Sekula hutsik egin ez zuena" titulua 1312an, Vadolungoko guduan garaile atera ondoren, erresumaren defentsan erakutsitako leialtasunagatik. Garai batean, bost parrokiak eta lau fraide-komentu ere izan zituen. Hango jauregi-gazteluan maiz hartu zuten ostatu errege-erreginek eta printze-printzesek, eta, izen bereko merindadearen buru izanik, hantxe egin ziren, zenbaitetan, gorte orokorrak ere. Bere-

biziko garrantzia izan zuen erromesei laguntzen, hamabi ospitale ere izateraino (halaxe dago dokumentatuta). Hantxe sortu zen, 1503an, Henrike Albretekoa printzea, Joanes eta Katalina errege-erreginen semea –Nafarroako azken errege-erregina pribatiboak–. Nafarroako erresuma konkistatu eta Gaztelako koroara gehitu ondoren, Fernando Katolikoak berretsi egin zituen Zangozako foruak (1513). Aragoi ibaiaren uholdeek maiz ureztatu zuten herria eta galera handiak eragin. Uholde larrienak, 1787koak, 600 hildakotik gora eragin zituen eta etxebizitza gehienak suntsitu.

Gerra karlistetan protagonismo handia izan zuen, hiria tropa liberalek hartu baitzuten.

Zangoza, gaur egun, 5.300 biztanleko hiri oparoa da.

ZANGOZAKO MONUMENTUAK

Zangozan, monumentu bat omen dago kale bakoitzean, Donejakue bideari esker. Zangoza bisitatzen duenak aurkitzen duen altxor handiena **Andre Maria eliza da (1)**. Monumentu nazionala da 1889. ur-

teaz geroztik, eta leku eta garai guztietako erromanoaren lan gorenetakotzat jotzen da. Lerdena da, eta proportzio ertainekoa. Altxor erromaniko hori XII. eta XIII. mendeen artean eraiki zuten, eta haren aurrean pausatzen da Zangozan Kale Nagusitik sartzen den oro. XV. mendeko kustumak gotikoa eta bertako portada bikaina dira elizako piezarik balioetsuenak. Portadak hainbat irudi erakutsiko dizkigu: azken judizioa, Jesusen aurkezpena tenpluan eta Salomonen judizioa. Eta Donejakue bideak Zangozan izandako eragin itzelaren lekukoa ere bada; izan ere, horren frogagarri ditugu erromesen ahotan hirira iritsitako kontakizun nordikoei lotutako zenbait irudi. Kale Nagusian barrena jarraituz, oso hurbil ikusiko ditugu **Anues jauregia (2)**, XV. mendekoa, eta **Inñiguez Abarkatarren jauregia (3)**, XVII. mendekoa.

Eskuinera hartzen badugu Alfontso Borrokariaren kalean, engungo Kultur Etxea den **Vallesantoro jauregia** iritsiko gara **(4)**. Jauregia Nafarroako zurezko hegala ikusgarrienetako batek koroatzen du. Handik hurbil dago **San Salbatore eliza gotikoa (5)**, XIV. mendekoa. Juan Berroetaren erretaula erromanista

bat dago elizan. Handik hurbil dagoen Henrike Albretekoa kalean, **Inñiguez Medranotarren etxean (6)** geldituko gara. Sarrera barrokoa du. Handik hurbil ikus daitezke antzinako harresiaren hondakinak eta **Andre Maria Karmengoa komentua (7)** (XV. mendea), XIII. mendeko klaustro gotikoa duena. **Carajeas portalea (8)**. Bidesaria ordaintzen zen han, pasabide garrantzitsua baitzen Aragoitik zetozen bidaiari, merkatari eta erromesentzat. Hiriko sarrerako atee-tako bat izan zen.

Santiago eliza (9), izen bereko kalean dagoena, garrantzi historiko handiko beste eraikin bat da. Estilo erromaniko berantiarri jarraituz hasi ziren altxatzen, baina gotikoan jarraitu zituzten lanak. Hona hemen eraikin horrek gordetzen dituen altxorretako batzuk: San Eloiren erretaula platereskoa (XVI. mendekoa), Santiago apostoluaren harrizko estatua (1965ean aurkitu zen, oholtzaren azpian), almenadun dorrea eta portada erromanikoa. Elizaren aurrean, erromes-ospitale zaharra dago, zeinaren portikoko dobelan erromesaldiaren ezaugarrien berri ematen baitu. Ez da kaskarragoa **San Frantzisko**

Asiskoa komentua (10). 1266an fundatu zen santuaren omenez; izan ere, bere erromesaldian, 1212. urtetik aurrera, lehen komunitate frantziskotarra sortu zuen garai hartako Zangozan (Rocaforte). Han dago Erlojuen Museoa.

Kale Nagusira itzulita, **Paris Inñiguez Abarkatarren jauregia (11)** eta **Sebastianen jauregia (12)** (Henrike Albretekoa, Vianako azken printzea bertan jaio zen) bisitatu behar dira. Merkatu kaletik desbideratuta, **Vianako printzearen jauregia** iritsiko gara **(13)**. Eraikin gotikoa da, Erdi Aroko harlandu soilez egina. Errege jauregi ere esaten zaio, eta bertan bizi izan zen Vianako printzea. Zangoza Nafarroako errege-erreginen gortea izan zeneko garaia ekartzen ditu gogora. Desagertutako geletako batean dago **udal-txea (14)**. 1570. urtean eraiki zuten eta fatxada erre-nazentista soila du; galeria arkupean bat du, lau arku behearekin, eta Arkupeak esaten zaio.

Interesgarria da **Vadolungoko San Adrianen kaperara (15)** joatea, Sos norabidean kilometro eta erdira, eta Nora kaperara, San Martin Unxerako norabidean.

Andre Maria eliza

Zangoza Berria –zaharra Rocaforte da– 1122an fundatu zuen Alfontso I.a Borrokariak, Iruñeko eta Aragoiko erregeak, Donejakue bideko etapa garrantzitsu gisa, Somportetik Jakan barrena iristen zena.

Kale Nagusiak mugatu zuen parrokiaren lurraldea, Andre Mariari eskainitako iparraldekoa eta Santiago apostoluari eskainitako hegoaldekoa; gero, XIII. mende amaieran, San Salbatore parrokiak sortu zen La Población auzo berrirako.

Halaber, XIII. mendean, eskeko ordenak ezarri ziren frantziskotarren, domingotarren, mesedetako eta karmeldarren komentuekin.

Andre Maria elizaren lehen erreferentzia idatzia 1131koa da, Alfontso Borrokariak bere kaperak eta jauregia Jerusalemgo San Joanen zaldunei oparitu zizkienezkoa. Gero, XIV. mendean Iruñeko elizbarrutira pasatu zen. Aragoi ibaiaren gaineko zubi ondoan dago, eta defentsa-funtzioa izan zuen, baita XIX. mendeko gerra zibiletan ere. 1889an monumentu nazional deklaratu zuten. XX. mendeko lehen erdian zaharberri zuten.

Kanpoaldea

Sortze-garaiak dira, XII. mendekoak, burualdeko hiru abside erromanikoak. Mende horren amaieran eta hurrengoan egituratu ziren habearteak, hegoaldeko portada eta dorre gotiko oktagonala.

Ataurrea

Portadaren gaia aztertzean, kontuan izan behar da bere eginkizun nagusia, eskultura erromaniko gehienena bezala, ikusleei mezu bat transmititzea zela, bai Zangozako fededunei eta bai bere aurrean igitzen ziren hainbat eta hainbat jatorritako erromesei. Gaiak xede irakaslea eta moralizatzailea zuen, batik bat.

Maisu eskultoreek harrian uzten zituzten mezuak, Jainkoaren hitzaren eta euren burutazioen mezuak uzten zituzten herri xeheari zuzendutako interpretazio bakun eta zuzenarekin.

Baina erromanikoak ONGIAREN eta GAIZKIAREN arteko borroka irudikatzen du, batik bat.

Adibide argia daukagu ateko mentsuletan: idia, otzantasanaren ikurra, tinpanoko Kristoaren eskuin aldean zegoen, zeruarekin eta dohatsuekin batera. Beste aldean, madarikatuekin eta infernuarekin batera, munstro androfago bat zegoen, infernuko lekuekin lotzen zena. Elizako sarreraren egonik, eraikinean sartzen zen fededunari heriotzaren ondoren izango zituen aurkako jomugei buruz gogoeta eginaraztea zen bere egitekoa, bizitzan izaten zuen portaera on edo txararen arabera: zeruko bakea eta zoriona edo infernuko oinazeta eta sufrimenduak.

Eta nor izan ziren portada zoragarri horren maisuak?, galdetuko diezu zeure buruari.

GOIALDEAN: SAN JUAN DE LA PEÑA MAISUAREN lantegiak egindako obra daukagu. Huescako monasterioa klaustroan eta Huescako eta Zaragozako Cinco Villasko beste eliza erromaniko batzuetan ere egin zituen lanak. Arku txikiz eratutako galeria bikoitz honetan azken judizioaren preludea irudikatu zuten: Kristo lau ebanjelariak, bi aingeruz eta apostoluez inguratuta.

BEHEALDEAN: LEODEGARIUS MAISU ESKULTOREAREN obra.

Estatua-zutabearen erabilerak Frantziako Chartres hiriko katedraleko mendebaldeko portadarekin lotzen du. Bat-etortze horrek Frantziako jatorria ematen dio artistari.

Andre Maria elizako portadako gai nagusiaren eszena tinpanoan dago jasota. Erdian Kristo besoan hazi zen jakin gabe. Han ezagutu zuen Regin errementariak Nibelungoen altxorra gordetzen zuen



tronpeta-jotzailez inguratuta. Azken judizioaren behalaketasunarekiko izuak, Apokalipsiaren zenbait interpretazioaren arabera garai hartan gertatu behar zuenak, askotariko adierazpenak inspiratu zituen. Arima salbatzea zen jende haien kezkarik handiena.

Portadak 300 bat irudi ditu. Irudi horien guztien artean, Sigurd heroia eta Regin errementariaren EUROPAKO IPARRALDEKO KONDARIA identifikatu da. Ezkerreko arkuartearen Europako iparraldeko korapilo zoragarria ikusiko duzu eta eskuineko arkuartearen errementari bat eta dragoia hiltzen ari den gizon bat.

Kondaira: "Sigurd errege baten semea zen eta basoan hazi zen jakin gabe. Han ezagutu zuen Regin errementariak Nibelungoen altxorra gordetzen zuen

dragoia hiltzera animatu zuen eta piztiaren bihotza ekartzeko eskatu zion. Ezpata bat forjatu zion eta Sigurdek dragoia hil zuen. Baina haren odola ukitu zuenean, txorien hizkera ulertu zuen eta errementariaren traizioaren berri jaso zuen (errementariak altxorraz jabetu nahi zuela)."

Eskandinaviako lurretatik etorritako erromesen bategi kontaktatu ote zion Leodegariusi elezahar hori su lagunkoi baten ondoan?

Ikus ezazu patxadaz obra hau, hartu behar duzun denbora eta bilatu arkiboltetan eta saltinbanki argaletan, gerlariak, apezpikuak, musikariak, falkoneroak, errementariak, bekatuak eta izaki fantastikoak, hala nola, sirenak, basiliskoak, dragoiak, harpiak eta abar.

Barrualdea


Oinplano erromanikoko tenpluak hiru habearte (erdikoa zabalagoa) eta hiru tarte ditu, arku zorrozet bananduta eta trazeria gotikoarekin estalita.

Burualde erromanikoak hiru abside erdizirkular ditu eta labe-gangarekin estalita dago. **Erdiko absidetik honako hauek ateratzen dira:**

1. Lau tronparen gainean bermatutako kupula monumentalak, dorre barruan dagoena.
2. Erdiko absidean erretaula nagusia dago, platereskoa, XVI. mendearen lehen erdikoa, bertako artistek egindakoa eta Rocamadorko Andre Maria buru duena. Behealdean ebanjelariak daude eta goialdean Ama Birjinaren bizitzako eszenak (XVI. mendea), XVIII. mendeko Igokundea eta Ama Birjinaren koroatzea.
3. Erdiko absidearen aurrean, koruan, Erdi Aroko teknikarekin egindako beirate moderno dago, Ama Birjinari eskainitakoa.

Alboko absideetan:

4. Gurutzitatu barrokoa (XVII. mendea).
5. San Blasen irudi gotikoa (XV. mendea).
6. San Migelen kaperak. XIV. mendean errege-kaperak gisa eraikia. Eskuinean, erretaula titularrak, irudi handiarekin eta XVI. mendean margotutako taulekin. Aurrealdean, pintura diptikoan, San Joanen Apokalipsiaren ikuspena eta atzealdean XVI. mendeko Deikundea. Ezkerrean, San Migelen irudia, XVI. mendekoa.
7. Nitxoak burdin hesi erromanikoarekin, barruan Garbikunde barrokoa duena.



8. Pietatearen kaperak. XVI. mendean eraikia. Eraistean multzoa hartzen du, XVI. mendearen lehen erdikoa estilo hispaniar-flamenkoan egina XVIII. mendeko erretaula baten barruan. XVIII. mendeko oihalak, San Frantzisko Xabierkoaren mirari bat eta Roque Amador zaldunaren elezaharra irudikatzen dutenak.

9. Norako Ama Birjinaren kaperak. XIII. mende hasierako irudia, izen bereko ermitan jatorria duena.

10. Prozesio-kustodia. Hiru gorputz beherakor dituen dorre dotorea, gizon eran eta gurutzaren errematatua. Espainiako zaharren artean dago eta partzialki urreztatutako zilarrezko pieza aparta da. Estilo gotikoan egin zen XV. mendeko tokiko lantegietan, eta hainbat aldiz ageri da bere marka (SANG). Erdiko gorputzean, zortzi apostoluren irudiak daude droselen azpian, erdikoa Santiago Nagusiarena. Goiko gorputzean bi aingeru gurutzailak daude. José Velázquez de Medranoren oinarri oktagonala, 1598koak, Itun Zaharreko eta Itun Berriko eukaristia-alegoriak ditu. Hainbat erakusketan egon da, esaterako, Sevillako Erakusketa Iberoamerikarrean, 1929an, Iruñekoan, 1920an, eta Madrilgoan, 1986an. Kultura Ministerioak 1997an zaharberri zuten Madrilan.

11. San Frantzisko Xabierkoaren erretaula. XX. mendeko neoerromanikoa da. Santuaren taila nabarmentzen da, beharbada Gaspar Ramosek egindakoa, Zangozako XVII. mendeko lantegiak.